

Parrandarako gida

Irakurtzen duzun bitartean, aukeratu hutsune bakoitzerako hitz egokia.

Bilbo la Viejan parranda gaztea

Aldaketa duela urte batzuk gertatzen hasi zen, eta gaur egun, Bilbo La Vieja modan dago. Zalantza ___1___, Bizkaiko hiriburuko auzo interesgarrienetarikoa bat da: giro alternatiboko galeriak, jatetxe berri asko eta moda diseinatzaileen denda ___2___ topatuko dituzu bertan. Eta, nola ez bada, hor dago klub eta tabernen zerrenda ___3___ ere bai, auzoa parrandarako leku ___4___ bihurtu duena.



Plan ugari antola daitezke Bilbo La Viejan parranda egiteko. Hona hemen ___5___ bat: Bilbo Rock Aretoa has ezazue gaua. Duela urte batzuk eliza izandakoa musika ___6___ bilakatu da eta hemengo eta kanpoko talde berriak ezagutarazten ditu. Bilbo Rock Aretoa ia astebururo egoten da zabalik, eta sarrera merke baten ___7___, kontzertu bikainak ikus daitezke. Musikaz gozatu ondoren, parrandarako ___8___ helduko da.

Martzana tabernan jarrai dezakegu ibilbidea, Martzana kale ondoan. ___9___ bi urte zabaldutako taberna honetan, giro alternatiboa, musika dotorea eta dekorazio zaindua topatuko duzue.

Bestalde, Martzanak mahaiak eta eserlekuak ditu, eta hori ___10___ da udako gauetan fresko-fresko egiteko. Bestalde, sekulako behatokia da itsasadarra eta Alde Zaharra ikusteko. Gaua hasteko beste toki egoki bat Café Nervión da. Taberna hau primeran dago koadrilakoekin eseri, musika ona entzun eta astegunetako kontuak ___11___ kontatzeko. Lehen poteak hartuta, gosetu egingo gara seguru asko, eta urdaila ondo betetzeko, ___12___ handia dago Bilbo La Viejan poltsiko mota guztientzat. Ogitarteko exotikoak nahi dituenak aukera zabala du, turkiar edo indiar postu eta jatetxe asko dagoelako inguruan. Bestalde, hor daude gozoki-dendak edo euskal jatetxe berriak (ez dira ___13___).

Gainera, denda batzuk zabalik egoten dira gau ___14___, eta janaria ez ezik alkohola ere erosteko aukera ematen dute, nahiz eta, azkenaldi honetan, Bilbon kalean edatea zail samar jartzen ari den. Izan ere, gaur egun, debekatuta dago kalean alkohola edatea. Baina betikoa da: zarata handirik egin ___15___, ez da arazo handirik izaten.

Bailen kalea beste puntu nagusietako bat da. Dantza egiteko, oso egokia da El Balcón de la Lola taberna: lokal handia da, eta jende ___16___ eta interesgarria topatuko duzue bertan.

Egia esan, euforia kutsagarria igartzen da El Balcón de la Lola tabernako atea ___17___ bezain laster. Dantza egiteko musika jartzeaz gain, ikuskizunak izaten dira: drag-queen-ak, kontzertuak, antzerkia...

Kale berean, bestalde, afrikarrek irekitako taberna bat dago; kontinente horretako etorkinak dira bezero gehienak. Leku ezin ___18___ da dub edo reggaea entzuteko, baina alkohola zerbitzatzen duten arren, zeharo debekaturik dago legez kanpoko substantziak kontsumitzea. Hara sartuz gero, etzazue porrorik erre, disko jartzaileak musika kenduko baitu, eta mikrofonoz ozen esango baitu marihuana erretzea debekatuta dagoela. Badakizue ___19___ .

Egia esan, gau hasierakoak dira ordurik onenak. 02:00etatik aurrera, Bilboko beste parranda guneetatik etorritako lagunak kaleak eta tabernak betetzen dituzte, eta zailagoa izaten da dena: dantza egitea, hitz egitea, edariak eskatzea...

Ordu horretatik aurrera, batzuek etxerako ___20___ hartzen dute, baina beste askok parrandan irauten dute. Gauaren parte horretan, taberna ugari dago aukeratzeko: Sidabia, Le Club eta Enigma, adibidez. Bestalde, Conjunto Vado delako areto historikoa 03:00etan ixten dute, 06:00etan berriz ere irekitzeko, parranda eguerdira arte luzatzekotan dabilzanentzat... Areto hauetan guztietan, azken tendentziak entzuteko eta ___21___ aukera ezin hobea dago. Areto dibertigarriak dira guztiak, eta oso giro tolerantia egoten da. Ondorioz, ez da harrizkoa gay kolektiboaren toki ___22___ bihurtu izana Bilbo La Vieja. Honetan, behintzat, Europako hiriburu handien pare dago Bilbo: Madrilek Chueca gay auzoa du, Londresek So-Ho, eta Bilbon haxe da gayen bilgunea.

Laster argituko du egunak, baina oraindik ere, lagun asko dabilza kaleetan eta aretoen sarreren inguruan. Batzuek etxerako bidea hartuko dute ___23___ , eta beste batzuek gau bateko amodio ___24___ baina ahaztezina aurkitu berri dute. Bakan batzuek, bizitzako amodioa (hurrengo iritsi arte, bederen) topatu dute.

Ezer izatekotan, aniztasuna da Bilbo La Viejaren ___25___ nagusia. Mota askotako jendea ibiltzen da inguruan, eta nobedade hori, kontuan hartzeko faktorea da ligatzen saiatzerakoan. Norbait berezia aurkituz gero, badira leku erromantikoak ___26___ egoteko, baina itsasadarraren inguruko pasealeku berria da lekuri politena. Zurezko pasealekuan bankuak daude lasai esertzeko, eta parranda gunetik ___27___ dagoen arren, leku isila da. Egunsenti politak ikus daitezke bertatik, eta hori era polita izan daiteke gaua amaitu eta gosaltzera joan aurretik, ___28___ ?



- | | |
|--|---|
| 1- guztiak / barik / zalantza / arabera | 15- ezkerro / ez baduzu / baduzu / ezean |
| 2- garestiak / erakargarriak / merkeak / zabalak | 16- ikusgarri / beldurgarri / arraro / berezi |
| 3- berria / luzea / amaitua / laburra | 17- zeharkatu / basakatu / ireki / pasatu |
| 4- balekoa / baliagarria / aproposa / ona | 18- ona / onagoa / hobea / txarra |
| 5- gidari / iradokizun / aholkulari / bide | 19- beraz / zer egin / zergatik / zertan |
| 6- areto / gela / leku / taberna | 20- bidea / taxia / busa / autoa |
| 7- bidez / orde / gatik / truke | 21- jabetzeko / dantzatzeko / besarkatzeko / ikasteko |
| 8- gunea / berandu / laguna / unea | 22- ttunttuna / kuttuna / maitagarria / ezkutua |
| 9- Oraindik / Duela / Dela / Oraingoz | 23- kostatik / azkar / bakarrik / pizkanaka |
| 10- eskerrekoa / nekagarria / eskertzekoa / poztekoa | 24- labur / bakar / zabal / luze |
| 11- elkarri / denei / besteari / guztiak | 25- neurri / lokarri / ezaugarri / maitagarri |
| 12- eskaintza / eskaera / elikagai / hautatzeko | 26- lasaitasunean / isilik / elkar / bakar-bakarrik |
| 13- gozoak / ezagunak / handiak / garestiak | 27- urrun / urruti / hurbil / gertuagoa |
| 14- betean / zehar / eta egun / osoan | 28- ez / ezta / bada / bai |

Eta zu non ibili ohi zara parrandan? Zein da zure parranda gau baterako ibilbide kuttuna? Eta parranda plan perfektua?

Demagun kanpoko lagun talde bat etorriko zaizula Gasteizera bisitan eta parrandan ateratzeko aholkua eskatu dizutela. Erantzun iezaiezu idatziz e-maila batean: Zein den Gasteizen parranda gau baterako ibilbide egokiena, zein kaletara joan, zein tabernatarara, zer egin daiteke Gasteizen iluntzetik egunsentira arte gau gogoangarri bat izateko.

.....

.....

.....

.....

.....

.....



ERANTZUNAK

Bilbo la Viejan parranda gaztea

Aldaketa duela urte batzuk gertatzen hasi zen, eta gaur egun, Bilbo La Vieja modan dago. Zalantza **1-(barik)**, Bizkaiko hiriburuko auzo interesgarrienetariko bat da: giro alternatiboko galeriak, jatetxe berri asko eta moda diseinatzaileen denda **2-(erakargarriak)** topatuko dituzu bertan. Eta, nola ez bada, hor dago klub eta tabernen zerrenda **3-(luzea)** ere bai, auzoa parrandarako leku **4-(aproposa)** bihurtu duena.

Plan ugari antola daitezke Bilbo La Viejan parranda egiteko. Hona hemen **5-(iradokizun)** bat: Bilbo Rock Aretoa has ezazue gaua. Duela urte batzuk eliza izandakoa musika **6-(areto)** bilakatu da eta hemengo eta kanpoko talde berriak ezagutarazten ditu. Bilbo Rock Aretoa ia astebururo egoten da zabalik, eta sarrera merke baten **7-(truke)**, kontzertu bikainak ikus daitezke. Musikaz gozatu ondoren, parrandarako **8-(unea)** helduko da.

Martzana tabernan jarrai dezakegu ibilbidea, Martzana kale ondoan. **9-(Duela)** bi urte zabaldutako taberna honetan, giro alternatiboa, musika dotorea eta dekorazio zaindua topatuko duzue.

Bestalde, Martzanak mahaiak eta eserlekuak ditu, eta hori **10-(eskertzekoa)** da udako gauetan fresko-fresko egoteko. Bestalde, sekulako behatokia da itsasadarra eta Alde Zaharra ikusteko. Gaua hasteko beste toki egoki bat Café Nervión da. Taberna hau primeran dago koadrilakoekin eseri, musika ona entzun eta astegunetako kontuak **11-(elkarri)** kontatzeko.

Lehen poteak hartuta, gosetu egingo gara seguru asko, eta urdaila ondo betetzeko, **12-(eskaintza)** handia dago Bilbo La Viejan poltsiko mota guztientzat. Ogitarteko exotikoak nahi dituenak aukera zabala du, turkiar edo indiar postu eta jatetxe asko dagoelako inguruan. Bestalde, hor daude gozoki-dendak edo euskal jatetxe berriak (ez dira **13-(garestiegiak)**).

Gainera, denda batzuk zabalik egoten dira gau **14-(osoan)**, eta janaria ez ezik alkohola ere erosteko aukera ematen dute, nahiz eta, azkenaldi honetan, Bilbon kalean edatea zail samar jartzen ari den. Izan ere, gaur egun, debekatuta dago kalean alkohola edatea. Baina betikoa da: zarata handirik egin **15-(ezean)**, ez da arazo handirik izaten.

Bailen kalea beste puntu nagusietako bat da. Dantza egiteko, oso egokia da El Balcón de la Lola taberna: lokal handia da, eta jende **16-(berezi)** eta interesgarria topatuko duzue bertan. Egia esan, euforia kutsagarria igartzen da El Balcón de la Lola tabernako ateak **17-(zeharkatu)** bezain laster. Dantza egiteko musika jartzeaz gain, ikuskizunak izaten dira: drag-queen-ak, kontzertuak, antzerkia... Kale berean, bestalde, afrikarrek irekitako taberna bat dago; kontinente horretako etorkinak dira bezero gehienak. Leku ezin **18-(hobea)** da dub edo reggaea entzuteko, baina alkohola zerbitzatzen duten arren, zeharo debekaturik dago legez kanpoko substantziak kontsumitzea. Hara sartuz gero, etzazue porrorik erre, disko jartzaileak musika kenduko baitu, eta mikrofonoz ozen esango baitu marihuana erretzea debekatuta dagoela. Badakizue, **19-(beraz)**.

Egia esan, gau hasierakoak dira ordurik onenak. 02:00etatik aurrera, Bilboko beste parranda guneetatik etorritako lagunak kaleak eta tabernak betetzen dituzte, eta zailagoa izaten da dena: dantza egitea, hitz egitea, edariak eskatzea...

Ordu horretatik aurrera, batzuek etxerako **20-(bidea)** hartzen dute, baina beste askok parrandan irauten dute. Gauaren parte horretan, taberna ugari dago aukeratzeko: Sidabia, Le Club eta Enigma, adibidez. Bestalde, Conjunto Vado delako areto historikoa 03:00etan ixten dute, 06:00etan berriz ere irekitzeko, parranda eguerdira arte luzatzekotan dabilzanentzat... Areto hauetan guztietan, azken tendentziak entzuteko eta **21-(dantzatzeko)** aukera ezin hobea dago.

Areto dibertigarriak dira guztiak, eta oso giro tolerantea egoten da. Ondorioz, ez da harritzekoa gay kolektiboaren toki **22-(kuttuna)** bihurtu izana Bilbo La Vieja. Honetan, behintzat, Europako hiriburu handien pare dago Bilbo: Madrilek Chueca gay auzoa du, Londresek So-Ho, eta Bilbon hauxe da gayen bilgunea.

Laster argituko du egunak, baina oraindik ere, lagun asko dabilta kaleetan eta aretoen sarreraren inguruan. Batzuek etxerako bidea hartuko dute **23-(pixkanaka)**, eta beste batzuek gau bateko amodio **24-(labur)** baina ahaztezina aurkitu berri dute. Bakan batzuek, bizitzako amodioa (hurrengo iritsi arte, bederen) topatu dute.

Ezer izatekotan, aniztasuna da Bilbo La Viejaren **25-(ezaugarri)** nagusia. Mota askotako jendea ibiltzen da inguruan, eta nobedade hori, kontuan hartzeko faktorea da ligatzen saiatzerakoan. Norbait berezia aurkituz gero, badira leku erromantikoak **26-(bakar-bakarrrik)** egoteko, baina itsasadarraren inguruko pasealeku berria da lekurik politena. Zurezko pasealekuan bankuak daude lasai esertzeko, eta parranda gunetik **27-(hurbil)** dagoen arren, leku isila da. Egunsenti politak ikus daitezke bertatik, eta hori era polita izan daiteke gaua amaitu eta gosaltzera joan aurretik, **28-(ezta)**?